



Herritar bat, supermerkatu batean eskularruak hartzen.



Ertzain bi, hutsik ageri den Arrasateko Garibai kalean.




Arrasateko okindegi baten, erosleendako tokia mugatuta.

EGOERA BERRIRA OHITZEN

Bizimodua aldatu behar izan
dute herritarrek; eta egokitzen
ari dira, gutxinaka / 2





Eneko Azurmendi ARRASATE

Atzo eguerdian Nekane Murga Osasun sailburuak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 765 dira koronabirus kasuak, eta horietatik 362 ospitalean daude. Hildakoei dagokienez, 36 ziren atzora arte.

Halaber, esan behar da oso zaila dela kopuru zehatzak jakitea. Izan ere, Osakidetza testak egiteari utzi dio sintoma arinak dituztenen kasuetan, Iñaki Peña barne medikuak azaldu duenez. "Hauek dira sintoma arinak: eztarriko min apur bat, belarriko edo begietako molestiak, buruko min puntu bat, gorputzeko mina, ezinegona, eta abar". Halere, gomendioa da "positiboa izango balitz bezala" jokatzera eta etxean geratzera. "Larritasun zantzuak" daude, ordea, proba egiten jarraitzen dute: sukarra, arnasestua, pneumonia, eta abar.

Modu berean, Osakidetza bertan behera utzi ditu aurrez aurreko kontsulta eta operazio guztiak, ezinbestekoak izan ezik. Hala, haurdun dauden emakumeen kontsultak eta onkologikoak zein premiazkoak ez dira etengo. Gaintzeko kasuetan, osasun-arloko profesionalek telefonoz erantzunak dituzte kontsultak eta, beharrezkoa bada, aurrez aurreko hitzordua ezarriko da zentroan.

KONFINAMENDU EGOERA

ERTZAINZAK BI SALAKETA JARRI DITU DEBAGOIENEAN EGUN HAUTETAN

Espainiak Gobernuak domekan jarri zuen indarrean konfinamendu egoera, eta baldintza jakin batzuetan izan ezik, herritarrek ezin dira kalera irten —ikus eskuineko orriko taula—. Ertzaintzak jakinarazi duenez, bailaran bi pertsona salatu dituzte "arrazoi justifikaturik gabe" kalean ibili eta egoteagatik. "Orain arte polizia-zaintza informatzera bideratuta egon bada ere, orain, alarma-egoerak ezarritako salbuespenetatik kanpo bide publikotik zirkulatzeko ari diren pertsonak salatzen hasi gara. Triste da, baina batzuek oraindik ez diote egoera honi behar den garrantzirik ematen, eta salaketa da egoera larria dela ulertarazteko modu bakarra", azaldu du Ertzaintzak.



Arrasateko Olarte kalea, erabat hutsik, aste honetan. Modu horretan daude Debagoieneko herrietako kaleak ere. XABIER URZELAI

Ezezaguna den egoera horretan

Gipuzkoan dagoeneko 90 pertsonak dute COVID-19 gaitza, Araban 474k eta Bizkaian 201ek, Nekane Murga Osasun sailburuak atzo emandako datuen arabera; bitartean, herritarrek etxean konfinatuta jarraitzen dute, Espainiako Gobernuak hala aginduta

NEURRI EKONOMIKOAK

JAURLARITZAK 1.000 MILIOI EURO JARRIKO DITU EKONOMIA ARINTZEN SAIAITZEKO

Eragin ekonomiko "izugarriak" saihesteko, Eusko Jaurlaritzak "berekala" aplikatu behar dituen neurrien berri eman du. 1.000 milioi eurotik gorako zenbatekoa ezarri du eta neurriak lau jardueraren bidez inbertsio zuzena, abalaz erraztea, finantzaketa-lerro berriak sortzea eta enpresei laguntzeko programak birfinantzatea.

Covid-19 programak 300 milioi euroko aurrekontua izango du, nahiz eta 500 milioira arte handitzeko aukera izango den. Finantzen Euskal Institutuaren finantzaketa lerroa, bestalde, aste honetan aktibatuko dute,

25 milioi euroko aurrekontuarekin. Zirkulatzailerro berriari dagokionez, "ahalik eta epe laburrean", EA Eren abalak izango dituen zirkulatzailerroaren 500 milioi euroko finantzaketak lerroak egituratuko dituzte, zero kostuan, bost urterako. Azkenik, finantza-baldintzak malgutu, birfinantzatu eta egokituko ditu Jaurlaritzak.

HAUTESKUNDEAK, BERTAN BEHERA LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK ATZERATZEA ADOSTU DUTE ALDERDIEK

EAJ, EH Bildu, PSE, Elkarrekin Podemos, PP eta Equo Berdeak alderdietako ordezkariak Iñigo Urkullu lehendakariarekin bildu dira asteon, eta adostu dute Eusko Legebiltzarrerako hau-

teskundeak atzeratzea. Hala ere, momentuz, ez dute jakinarazi noiz egingo diren. "Hauteskunde deialdia Osasun Larrialdiaren Adierazpena kendu ondoren aktibatuko da", adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak.

ARRETA ZERBITZUAK, ONLINE

AURREZ AURREKO ZERBITZUAK ITXITA, BESTE BIDE BATZUK ERABILIKO DITUZTE


Eusko Jaurlaritzak asteon jakinarazi duenez, Lanbide, Zuzeneko, Hezkuntza, Etxebizitza eta beste hainbat zerbitzu itxita egongo dira aldi baterako. Horrez gain, Diputazioak jakinarazi du Ogasuneko arretako bulegoek ere ez dutela aurrez aurreko zerbitzurik eskainiko. Bestalde, Estatuko Enplegu Zerbitzu Pu-

Botiketan, beharrezko gauzak soilik

Osasun Ministerioak eskatu du koronabirusaren aurrean babesteko behar den material guztia osasun-agintarien esku uzteko. Horregatik, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak herritarrei jakinarazi die babesteko erabiltzen diren maskarak, gelak, alkoholak eta antzekoak erostera ez joateko. Adierazi dute une honetan ez dituztela produktu horiek eta, egonda ere, ezingo dietela partikularrei saldu.

Gogoratu Osakidetza eman dituen gomendioak:

- Garbitu eskuak sarritan.
- Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapiak eta garbitu eskuak.
- Eztula edo doministiku egin eta sukarra duten pertsonengandik metro batera egon, gutxienez.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
- Eskuen ukitze-eremuetan garbitasuna areagotu, etxean zein leku publikoetan.



blikoak ere atea itxi ditu, eta baita NA edo pasaporte berri-
tzeko polizia bulegoek ere.

Horrekin lotuta, bailarako uda-
lek eta zerbitzu publikoek neu-
rriak hartu dituzte. Arrasaten,
esaterako, bulego arreta zerbi-
tzuak (BAZ) kudeaketa telema-
tikoa indartuko du herritarrei
zerbitzua bermatzeko, 943 25 20
00 telefonoaren eta baz@arrasate.eus helbidearen bitartez. Ber-
garako Arreta Zerbitzuak, berriz,
telefonoz, posta elektronikoz eta
Skype bidez soilik artatuko ditu
herritarrek – 943 77 91 00 telefo-
noa, baz@bergara.eus helbidea–.
Oñatin ere telefono bidez fun-
tzionatzen ari dira, 943 78 04 11
eta 943 03 77 00 zenbakietan.
Gainontzeko herriak ere halatsu
dabilta –Goiena.eus webgunean
dago informazio gehiago–.

LAGUNTZEKO ZERBITZUA

DEBAGOIENKO HERRIETAN BOLUNTARIO SAREAK OSATU DITUZTE

Ezohiko egoera honen aurrean,
bakarrik bizi diren adinekoen

eta babesik gabeko egoeran dau-
den pertsonen beharrei erant-
zuteko asmotan, boluntario
sareak eratu dituzte bailarako
herri guztietan, eta herri bat-
zuetan, gainera, udalarekin
elkarlanean dihardute. Antzuo-

la izan zen sare hori osatzen
lehena, eta ondoren, apurka,
gainontzeko herriak batzen joan
dira ideia horretara. Bergaran,
Udalak eta herriko hainbat era-
gilek elkarlanean Bergara Zain-
tzen boluntario taldea sortu dute.

Arrasaten, bestalde, hasiera
batean Udala eta sare zibila
aparte antolatu arren, adostu
dute batera aritzea, Gurutze
Gorriarekin elkarlanean, betie-
re, Udalak ezinbestekotzat jo-
du-eta hori. Hala, 120 herritarrek

osatutako lantaldea Gurutze
Gorriarekin harremanetan jarri
ahal izango da eta hark laguntza
eman ahal izango dio.

Halaber, Oñatin ere elkarla-
nean dihardute Udalak eta he-
rritarrek. Aretxabaletan, lagun-

Zer egin dezaket? Eta zer ez?

Alarma egoera dela eta,
baldintza jakin batzuetan
bakarrik irten daitezke
herritarrek kalera.

Irten naiteke paseatzera?
Ez. Ezta korrika egitera ere.

Zer egiteko irten naiteke?
Lanera joateko; janariak,
egunkaria, botikak eta
lehentasunezko gaiak erosteko;
medikuarengana joateko; dirua
ateratzeko; adinekoei,
adingabeei, mendekoei,
desgaitasuna duten pertsonen
edo bereziki ahulak diren
pertsonei laguntzeko eta zaintza
emateko.

Txakurra atera dezaket?
Bai, baina pertsona bakarrak.
Gomendatzen da sarri ez
ateratzea. Beharrezkoa denean.

Umeein irten naiteke kalera?
Oso egoera berezian izan ezik,
etxean geratzea agintzen da.

**Senideak edo lagunak
bisitatzea joan naiteke?**
Ez. Zaharrak edo laguntza behar
dutenak laguntzera ez bada.

**Ze kasutan joan daiteke
lagunduta kalean?**
Zaharrekin edo mugitzeko
arazoak dituztenekin bagoaz
bakarrik.

**Postetxera edo mezulari
zerbitzu batera joan naiteke?**
Bai, baina ziurtatu ondo
ordutegiak.

**Iturginek, arotzek, igeltseroek,
eta abarrek lanean jardun
dezakete?**
Bai. Telelana gomendatzen da,
baina, lan batzuetan ezinezkoa
denez, ahal denean soilik.

**Elikagai dendetan jarritako
arauak errespetatu behar
ditut?**
Bai. Jende pilaketak saihesteko,
gutxienez metro bateko tarte
uztea gomendatzen dute arauak
eta hori betetzeko neurriak

betetzera behartuta daude
herritarrek leku publikoetan.

**Garraio publikoa erabil
daiteke?**
Bai. Dena den, larrialdi egoera
dela-eta hainbat zerbitzu
murriztu egin dira. Orduetgia
kontsultatu lehenbizi.

**Arau-hausteak zigortu egin
daitezke?**
Bai. Poliziak hasi dira isunak
jartzten arauak ez betetzearren.

**Komeni da elikagai asko
erostea, badaezpada ere?**
Ez, eta hori saihesteko dei
egiten da.


Eskuen higienizatzailea



Ibai-arteko
dendetan bakarrik

Non eskuratu higienizatzailea

AZPILIKUETA HARATEGIA	Doctor Bañez Kalea 10	943792821
EGUREN ARRAINDEGIA	Gipuzkoa Etorb. 3	943795906
EGUREN ARRAINDEGIA	Olarte kalea 3	943796673
ESTACION DE SERVICIO ARRASATE	San Andres 7	943791339
EXPERT ELKORO	Gipuzkoa Etorb. 6	943791037
FELI	Okendo Kalea 3	943794885
INSTITUTO ÓPTICO	Erdiko Kalea 22	943797168
IZADI BELARDENDA I	Seber Altube 8	943797579
IZADI BELARDENDA II	Kontzezio kalea 8	943790356
LANDALUZE HARATEGIA	Iturriotz Kalea 7	943791486
MILAR ELKORO	Olarte Kalea 35	943791886
OTAMENDI	Olarte Kalea 13	943796228
PORTALOIKO KIOSKOA	Erdiko Kalea 9	943793437
SABURDI	Otalora Liz. Kalea 12	943798615
SALEGI HARATEGIA	Olarte Kalea 20	943794555
SUSTRAI FRUTA DENDA	Olarte kalea 1	943109079



tza zerbitzua jarri du abian bertako Udalak.

LANTEGI BATZUK, ITXITA

ENPRESA BATZUK NORMALTASUNEZ ARI DIRA, BAINA BESTE BATZUK ITXITA DAUDE

Bailarako enpresei dagokienez, batzuk normaltasunez ari dira lanean oraindik, Arrasateko JMA, esaterako, eta, momentuz, ez dago langilerik etxetik lanean. Hornitzaileen edota komertzialen bisitak ere jasotzen dituzte; izan ere, azaldu dute gainontzeko langileekin kontakturik ez dutela izaten horiek, eta arrazoi horregatik ez dituzte bisitak bertan behera utzi. Garaia Parke Teknologikoan, bestalde, langile gehienak etxetik ari dira lanean, baita Laboral Kutxan ere. Mondragon Unibertsitateko langile guztiak ere unibertsitate-jarduera telelan-formatuan egiten ari dira. Beste lantegi batzuek, ordea, egun batzuetarako aktibitatea etetea erabaki dute. Fagor Arrasatek eta Ulma Packaging dira horietako batzuk.



Jon Merino, Amets Merino eta Lorea Oribe, Lanzaroteke hotelean. L.O.

Mugimendu Feministaren kezkak

Euskal Herriko Mugimendu Feministak zainketen kudeaketari helduko dion krisi mahai bat sortuko duela adierazi du. Mugimenduren ustez, COVID-19ak sortutako egoerarekin, "zaintza krisia agerian geratu da, eta, horregatik, beharrezkoa da paradigma aldatzea, norbanakoaren autosufizientziaren sinesmenean oinarritutako eredu neoliberal aldatzea eta bizitza erdigunean jartzea".

Honi lotuta, eraso matxista bat gertatu zen atzo, Arrasateko San Andres auzoan. Ertzaintzak baieztatu duenez, senide batek eman zuen gertatutakoaren berri, eta 60 urtetik gorako gizona bat atxilotu dute emaztea erasotzeagatik. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan direnendako zerbitzua: 900 84 01 11.

ETXETIK KANPOKO ESPERIENTZIA

KRISI HONEK ETXETIK KANPO HARRAPATU DITU HAINBAT DEBAGOIENDAR

Jon Merino eta Lorea Oribe arrasatearrak oporretara joan ziren Lanzarote, Amets Merino semearekin batera. Oporrak martxoaren 7tik 15era planeatu zituzten, baina oraindik han daude, hotelean sartuta, ezin etxera iritsi. "Astebete osoan ondo egon gara, bazirudien ezer ez zela gertatzen, burbuila batean moduan geunden. Baina asteberua iritsi zenean, apurka guztia kentzen hasi ziren, hoteleko ekintzak, eta abar, eta, azkenean, logelatik ezin irten geratu gara", azaldu du Jon Merinok. Ziurgabetasun handia dutela dio, eta ez dakitela zer egingo duten. "Domekan aireportura joan ginen, hegaldia genuelako, baina izugarrizko kaosa izan zen guztia. Ez genuen hegazkina hartu eta ez ziguten soluziorik eman". Gaur, beste hegaldi bat daukate, Madrilera, baina ez dakite hegazkina hartu ahal izango duten.

"Behin hoteletik irtenda, ez digute zurtatzen berriz sartu ahal izango garen".

Blanca Briongos eta Iñaki Gorostidi arrasatearrak, bestalde, kruzero bat egitera joan ziren, baina etxera itzuli behar izan dute. "Martxoaren 13an Dubaitik irten, eta Oman, Yemen, Jordania, eta abar pasa ostean, Grezian bukatzea zen asmoa, hilaren 29an. Madrildik Dubaira hegazkina genuen eta ordurako nabaritzen zen egoera ez zela ohikoa. Dubaira iritsi ginenean, esan ziguten aldaketa batzuk izango zirela bidaian, eta leku batzuk ezingo genituela bisitatu. Barkura sartu aurretik, proba batzuk egin zizkiguten, eta batzuek tenperatura altua zeukaten. Azkenean, guztiok egin behar izan genituen proba gehiago. Gaua kruzeroan pasatu genuen, eta hurrengo goizean, ate azpitik ohar bat helarazi ziguten, esanez bidaia bertan behera geratuko zela eta Madrilera hegaldia hartuta geneukala. Aireportura eraman gintuzten, presaka, eta hegaldia hartu genuen. Gainera, *business*-ean itzuli ginen", adierazi du Briongosek.

'Puntua' denen eskura

Goiena Klubeko 4.000 bazkideen laguntzari esker, astero banatzen den *Puntua* aldizkariaren edukia herritar ororen eskura jarri du Goienak, egoera berezi eta larri honetan.

Honenbestez, *Puntua*-ren 225 zenbakitik gora daude harpidedun ez direnen esku. 10.000 orritik gora: artikulua atenporalak, elkarrizketa landuak, erreportajeak... milaka eta milaka letra, larrialdi egoera hau goxatzeko.

Goiena Klubeko 4.000 bazkideendako bakarrik den aldizkaria libre dago denbora mugatu honetan.

<https://goiena.eus/prentsa/>

puntua



goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!



"Gaitasuna dugu edozein egoeratarara moldatzeko"

UNAI SERRANO PSIKOLOGOA

Koronabirusak eragindako egoera honen aurrean gizakiak sentimenduak ongi kudeatzea ezinbestekoa da; edozein erabaki hartzeko orduan, burua argi eduki

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Martxoaren 14an ezarritako alarma eta konfinamendu egoeraren hasierako egunak besterik ez da pasa. Ohitzeko egunak dira. Ohitura berriak hartzeko. Egunerokotasuna antolatzeko. **Zer gertatuko da hamabost egun baino gehiago izaten badira?** Orain esan digute hamabost egun izango direla, eta ezinezkoa ikusten dugu horrenbeste egun konfinatuta egotea. Baina argi daukat gizakiok edozein egoeratarara moldatzeko gaitasuna dugula. Are gehiago, inposatutako egoera denean. Beharrak berak agerian ipintzen digu bizirik irauteko dugun sena.



Unai Serrano psikologoa. U.S.

Oztopo bakarra izan daiteke etsipena. Koronabirusa buruan bueltaka badaukagu, ezinezkoa izango da barnean daukagun bizi-iraute ahalmena azaleratzea. Uste dut hamabosgarren egunerako barneratuta izango dugula bizi dugun egoera. Normaltzat hartuko dugu.

Derrepente, kaleak hustu egin dira, eta etxeak bete. Nola kudeatu behar da egoera berri hori?

Ohitura batzuk finkatuko nituzke nik. Umeen kasuan, jaikitze-ko ordu bat zehaztu, haginak garbitu, gosaldutxo, etxeko lanak egin... Eta oso inportantea da pijama erantzi eta kaleko arropa ipintzea. Ez gaude etxean oporretan, deskantsatzen. Bete-behar batzuk ditugu. Aktibo egon behar dugu. Aholku horiek berberak lirateke helduendako. Gaineratuko nuke egoera hau luzatzen den heinean etxeko kideen arteko harremanak proba moduan egongo direla. Hori horrela, oso inportantea litza-teke, helduek bereziki, euren-dako espazio bat topatzea. Lasai eta bakarrik egoteko tarte bat. Errekurtso horiek freskoago mantenduko dute etxeko giroa.

Telelana, ikasleak etxetik eskolak hartzen, kirola etxean egiten... Hori ere ezohikoa da.

Eta horregatik izan daitezke arriskutsuak egoera horiek. Etxetik lan egiteak edo eskolak hartzeak edo kirola egiteak ez du esan gura erlaxatu egin behar dugunik. Etxean gaude behartuta, baina autodisiplina ezinbestekoa da horiek aurrera ateratzeko.

Kaos egoerak ikusi dira; batez ere, supermerkatuetan. Kutsakorrek dira histeria puntu horiek?

Bai. Beldurra oso kutsakorra da. Une honetan, gaixotzeko daukagun beldurra gaixotasuna bera baino arriskutsuagoa izan daiteke. Eta paranoia bilakatzen bada, baita mingarria ere.

Alarma egoera kentzen dutenean, nolako izango da normaltasunerako itzulera?

Kosta egingo zaigu, ohituren menpe gauden heinean. Konfinamendu egoeratik ateratzen garenean, gogorra izango da normaltasunera itzultzea, gizartea ez delako berbera izango. Hamabost egun baino gehiago beharko ditugu; eta egoera ez da berbera izango, gainera.

Badator...

Adaberririx!

Bertan behera!

SARBAN zure zain daude

Zaindu eta bueltan ikusiko dugu elkar!

MARTXOAK 21 - 28


Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu, idatzi txanda.oinati@hotmail.com helbidera

txanda

OÑATI
dabilen herria

Ezkerdi, azpizena, hiru omak

GUZKO BAIKUNTZA
GUZKO BAIKUNTZA



Maialen Santos DEBAGOIENA

Kazetari autonomo jardun du lanean Ane Irazabalek. Italia konfinamendu egoeran egon arren, lan arrazoiengatik gertutik ari da jarraitzen koronabirusak eragindako egoera.

Momentu honetan, zein egoeratan zaudete Italian?

Herrialde guztia konfinamenduan dago. Ezin gara atera bizi garen herritik. Hiru baldintzapean bakarrik atera daiteke etxetik: lan arrazoiengatik, janaria erosteko eta osasun larrialdi batenegatik. Kasu guztietan ziurtagiri bat behar da, poliziak galdetu ahal dizulako zergatik zauden kalean. Barne Ministerioak argitaratu du posible dela kalera paseatzera irtetea, baina pertsona bat familiako. Herrialdea koronabirusaren unerik gogorrena bizi izaten ari da. Ez gara iritsi kurbaren erpinera, eta hildakoen eta kutsatuen kopurua gorantz doa esponentzialki.

Kazetari legez, izan duzu arazorik kalean lan egiteko?

Italiako Barne Ministerioak kazetari guztioi bidali digun dokumentu bat daukat, autoziurtagiri bat. Horrekin lan egitera irten naiteke. Ezin naiz nire hiritik irten, halere.

Nola baloratzen duzu Italian herritarrek eta politikariek izandako erreakzioa, bai krisiaren hasieran, bai momentu kritiko honetan?

Hiru aste baino gehiago darmatzagu eta fase guztietatik pasatu gara. Lehenengo, desinformazioan oinarritutako alarmismoa zabaldu zen eta horrek txinatarrekiko xenofobia zabaldu zuen. Gero, saiakera bat egon zen krisia txikitzeke, hein handi batean ardura handia zegoe-lako krisiak edukiko zuen ondorio ekonomikoengatik. Bizitza normala egiteko esan zuten, eta infekzioa gehiago zabaltzea ekarri zuen horrek. Baina, egunak pasatu ahala, denak kontzientziatu dira, eta, ondorioz, herrialde osoa gelditu da. Bestalde, eztabaida politikoa eguneroko kontua da Italian. Errepublikako presidentearen aldetik deialdi bat egon da alderdi politikoei esaten moduko bat sinatzeko. **Zein fasetan zaudete orain?** Baikortasun fasean gaude. Arratsaldeetan balkoietatik musika entzuten da. Ikusiko dugu zer gertatzen den hamabost egun baino gehiago egon beharko dugula esaten badigute.



Ane Irazabal, Italiatik kamera aurrekoa egiten, ETBko albistegietarako. A.I.

"Konfinamendua eraginkorra dela erakutsi du Txinak"

ANE IRAZABAL KAZETARIA

Ane Irazabal kazetari arrasatearra Erromatik ari da kontatzen koronabirusaren krisia. Azaldu duenez, Italia koronabirusaren "unerik gogorrena" bizi izaten ari da orain

Herritarrek kontzientzia hartze prozesu bat izan da?

Kosta egin da, individualismoaren ondorioz eta jendea oso nahasita egon delako. Herrialde osoa konfinamenduan jarri arte, iparraldetik hegoaldera ihes egin duen jendea egon da. Horrela, kutsadura beste leku batzuetara eraman dute. Halere,

"KONTZIENTZIA-HARTZE KOLEKTIBOA EGON DELA USTE DUT"

uste dut kontzientzia-hartze kolektiboa egon dela.

Italian gure aurretik zoazte. Euskal Herrira begiratu, egoera zelan ikusten duzu?

Bederatzi egun atzetik zoazte, baina neurriak guk baino ari-nago hartu dituzue. Mugimenduak murriztea, taberna eta jatetxeak ixtea... Gainera, Euskal Herrian oso gauza kurioso eta polita gertatu da. Jende askok bere kabuz erabaki du ixtea, agintariek esan aurretik, arduratsua direlako. Hori Italian

ez da gertatu. Gobernuak esan arte ez dute erabaki hori hartu. Txinak erakutsi du konfinamendua eraginkorra dela, eta bakoitzaren ardurarekin ikusiko da zer gertatzen den. Hor, hasieran, jende askok broman hartzen zuen, baina jendeak geroago eta hurbilago ikusi duenean kontzientzia hartu du.

"ERREFUXIATUEI EZ DIETE INOLAKO PROBARIK EGINGO"

Beste herrialde batzuetan konfinamenduarena zalantzan jartzen da. Erresuma Batuan, esate baterako.

Erresuma Batuen kutsadura kontrolatuaren estrategiak alar-mak piztu ditu toki guztietan. Estrategia bat egon da Johnsonen aldetik ekonomia ez kalte-tzeko. Ikusten da zein den bere lehentasuna, eta, agian, ez da adinekoen bizitzak salbatzea. Hori antropologo batek, agian, hobeto aztertu dezake, kultura katoliko batean edo gizarte protestante batean bizi zein eragin duen. Uste dut pisu katolikoa dugula guk, bizitza laikoa egin arren, eta horrek badu bere eragina: bizitzaren garrantzia... Darwinismo sozialean oinarritu da Johnson. Indartsuenek bakarrik bizirik irauten dute.

Kazetaritzaren ikuspuntutik azterketa izaten ari da denontzat. Ari gara asmatzen gai honen inguruan informatzerakoan?


Testuinguru berri batean gaude, arlo guztietan. Medikuentzat, agintarientzat eta baita kazetari-entzat ere. Egutero aldatzen ari den testuinguru batera egokitzen eta erantzun bat ematen ari gara. Hasieran Italian zegoen sensazionalismoaren aldeko olatu hori desagertu egin da. Azken urteetan desagertuta egon den zerbitzu publikoa indarra hartzen ari da horrelako testuinguru batean.

Lesbosen bizi den egoeraren inguruko jarraipena egiten duzu. Han ere koronabirus kasuak agertzen hasi dira. Errefuxiatuek ez badituzte gutxieneko zerbitzu minimoak jasotzen, janaririk, edateko urik... ez diete inolako koronabirus probarik egingo. Egia da birusak ez duela herriaren, arrazaren, kolorearen bereizketarik egiten. Birusari erantzuna emateko estrategia, berriz, arrazista izango da. Eta hori argi ikusiko dugu krisi hau errefuxiatuen kanpalekuetan kudeatzeko orduan, eta ez bakarrik Lesbosen. Nahiz eta birusa oso demokratikoa izan, emango den erantzuna ez da halakoa izango. **Maila pertsonalean, zelan darazazu hau guztia?**

Saiatzen naiz animatuta egoten eta ondokoak zaintzen, telefonoz bada ere. Gure inguruko bizilagun asko emakume alargunak dira. Saiatzen gara beraien erosketak egiten.



Amaia Navarro etxean semeekin, Lyonen. A.N.



Ion Zabaleta, Nashvilleko etxean. I.Z.



Eskozian bizi den Mikel Arana. M.A.



Mireia Ibabe, Mexikoko aireportuan. M.I.

Birusa prebenitzeko neurriak hartzen hasi dira herrialdeak

Lehen kasuak Txinan egon baziren ere, azkar hedatu da birusa munduan barrena, eta munduaren txikitasuna agerian geratu da. Muga geografiko guztiak gainditu ditu eta herriarren egunerokotasuna aldatu, egoera zenbat luzatuko den iragarri barik

Oihana Elortza OÑATI

Frantzia, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon eta Eskozian bizi diren lau debagoiendarrek koronabirusa euren herrietan, euren egunerokotasunean, zein eragin izaten ari den kontatu diote GOIENARI. Hain zuzen, etxetik eta lantokitik erantzun dituzte galderak.

ION ZABALETA

ARRASATE - AEB

"Tornadoaren inguruan gehiago hitz egiten da birusari buruz baino"

Film baten gidoia izan daitekeen egoera bizi dutela dio Nashville-n bizi den arrasatear honek. "Martxoaren 2ko gauean, tornado bat jasan genuen hirian. Etxetik 600 metrora pasa zitzaigun. Oraingo, 25 hildako daude. Eta hamar egunera, birusaren kontua heldu da".

Zabaletak gaineratu du gauzak aldatu egin direla, baina hainbat egoera tornadoaren ondorioak aldatu dituela, ez koronabirusak ekar dezakeenak. "Hemen, musikaren hiriburuan, kontzertu guztiak bertan behera gelditzen hasi dira aurreko astetik. Nire

inguruko lagunak, denak musikariak, lur jota daude. Bira guzti-guztiak suspenditu dira. Era berean, kale nagusian, turisten kalean, betiko mugimendua dago. Zentzugabe ari dira jokatzeko taberna eta jatetxe asko. Horrela jarraituz gero, Europako estatistikak motz geratu daitezke. Hala ere, egia da taberna askok ixtea erabaki dutela azken 48 orduetan. Eta hainbat supermerkatutan minutu gutxitan agortu dira produktu batzuk".

Zabaletak dio kalean ibiltzeko mugarik ez dagoela oraindik; bai, ordea, lanerako. "Hartu duten erabaki bakarra etxetik lan egiteko neurria da; horixe ezarri digute, besterik ez. Ikastetxeak orain dela bi astetik daude itxita, tornadoak eragindako kalteengatik, eta orain, apirilaren 1era arte luzatu dute erabakia, birusagatik".

Koronabirusaren azterketei eta bakunari buruz ezer ez dutela esaten dio Zabaletak, oraindik hango albistegiaren tornadoari buruzko notiziek minutu gehiago hartzen dituztela birusari buruzkoek baino. "Probak non egin daitezkeen... ba, galdera ona da hori. Guri, esaterako, enpresak esan digu kostu guztiak ordainduko dizkigula.

Bakunari buruz, ordea, ez da ezer entzuten. Zoritxarrez, tornadoaren inguruan hitz egiten da gehiago, oraingo 25 hildako baitaude, eta milaka pertsona etxe gabe geratu dira. Birus handiena telebista bera da".

MIREIA IBABE

BERGARA - MEXIKO

"Martxoaren 20an itxiko dituzte eskolak Mexikon, hilabetez"

Mexikoko erdialdean dagoen Puebla hirian bizi da Mireia Ibabe bergararra. Jendea kezkatuta sumatzen du koronabirusagatik. "Kalean jende gutxiago ikusten da, bai, baina herriarrak kezkatuta daudelako da hori, eta etxean egoteko erabakia hartu dutelako. Gobernuak oraindik ez du alarma egoerarik eta konfinamendurik ezarri. Aireportuan, esaterako, ez dute tenperaturarik hartzen, nahiz eta maskarekin eta eskularruekin ikusi jendea. Dio egoeraren lehen fasean gaudela, baina hasi da bigarren faseko neurriak hartzen. Jende asko pilotzen den tokietara ez joateko gomendioa egin dute, zabalik jarraitzen

duten arren, baina eskolak, esaterako, unibertsitateak barne, itxi egingo dituzte martxoaren 20tik apirilaren 20ra".

Ibabe herrialde ezberdinetakoak diren beste hamabi lagunekin batera bizi da etxe batean eta beraiek kalera ahalik eta gutxien ateratzeko erabakia hartu dute, eta egunerokotasuna etxe barrura mugatu. "Gai-xotzen diren herriarren kopuruari dagokionez, saltsa handia dago datuetan. Gobernuak kopuru batzuk ematen ditu, baina gehiago diren ustea dago herriarren artean. Hemengo osasun publikoa ez da ona eta pribaturara joateko dirua behar da. Herriar askok gaixotasuna etxean pasatzen dutela uste da, inora joan barik".

MIKEL ARANA

ESKORIATZA - ESKOZIA

"Kalean ez da ezer nabari, baina lantokira txandaka joaten gara"

Mikel Arana eskoriatzarrak ez du aparteko egoerarik ikusi orain arte Eskozian, herriarrak ohiko bizimodua egiten ari direla dio, nahiz eta bere kasuan, adibidez, lanera joateko egunak murriztu dituzten bere lantokian. "Nik, esaterako, etxetik lan egingo dut asteazken, ostegun eta ostiralean. Eta hurrengo astean alderantziz, astelehen eta martitzenean etxetik jardungo dut eta beste hiru egunetan bulegora joango naiz. Gainerakoan, jendea normal ikusten da zinemara joaten edo taberna eta jatetxeetan. Uste dut jende askok ez duela oraindik uste ze ondorio izan ditzakeen birus honek. Glasgowko kaleetan ikusten den argazkia ohikoa da: jendea oinez, tabernetan, eta abar".

AMAIA NAVARRO

OÑATI - FRANTZIA

"Ziurtagiri bat izan behar dugu kalean poliziarik erakusteko"

Joan den egubakoitzetik ezer ez da antolatu Frantzian koronabirusagatik, eta zapatuan, martxoak 14, tabernak, zinemak eta lehentasunezko produktuak saltzen ez dituzten dendak itxen hasi ziren, Lyon-en bizi den Amaia Navarrok adierazi duen moduan. "Eguenera arte ez genuen ardura handirik. Kaosa iritsi zen Emmanuel Macron presidenteak esan zuenean astelehenetik aurrera eskolak itxita egongo zirela". Ikastetxeak itxita, eta lantokietan ere lana etxetik egitea eskatu eta ahalbideratu dute Frantzian. "Nik lehendik ere banuen aukera hori, baina hiru ume etxean edukita nahiko zaila da eta baja eman didate. Gobernuak onartutako neurri berri bat da: hamalau egunez etxean geratu umeak zaintzen, gizarte segurantzak ordainduta. Hala ere, ikusiko dugu nola izango den gero, hamalau egun baino gehiago izango dira eta. Herriarrok, baina, etxean gaude konfinatuta, martitzen eguerditik; hamabost egun iraungo du. Tarte horretan, ziurtagiri bat beharko dugu kalera ateratzen garen bakoitzean poliziarik erakusteko".

Asteburuan hauteskundeetako lehen itzulia izan zuten Frantzian, eta aparteko neurriarik ez zuela ikusi gaineratu du oñatiarrak: "Gure boto-lekuan, adibidez, inork ez zituen eskularruak edo maskarak erabili; distantziarik ere ez zen gorde ilaran zeuden pertsonen artean. Gomendio bakarra izan zen etxetik eramatea boligrafoa eta paperak. Bigarren itzulia atzeratu egingo dutela esan du presidenteak".

EDITORIALA

Informazioa eta zerbitzua

Ez zegoen Espainiako presidentek esan beharrik informazioa "premia biziko ondasuna" dela: neurriak hartu eta zerbitzua emateko hautua egina zuten lankideek. Dakigun hori egiten jarraituko dugur: kazetaritza. Goienan erabaki da informazioa lehenestea. Baita lekuri ez egitea sentsazionalismoari eta alarmismoari.

Banaketan ere egin ditugu moldaketak. Herriar guztien eskura jarri nahi izan dugu zenbaki hau, informatzea beharrezkoa baita bizi dugun egoeran. Hala ere, ez dugu 20.000 buzoitan banatuko alarmak dirauen artean; Batu-banatu enpresako lankideek babes neurriekin egingo dute banaketa. Goiena Klubeko bazkideei etxera banatuko zaie; eta okindegi, kiosko eta elikagai dendatan ere utziko ditugu ale batzuk, doan hartzeko. Jaurilaritza-Ertzaintza eta udalak-udaltzainak jakinaren gainean direla. Osasungintzako langileei, komertzio txikiei, farmaziei... eta banatzaile zein kazetariari ere esker ona lerroetatik.



**MARIA
UBARRETXENA**
ARRASATEKO
ALKATEA

Udala, herritarren ondoan

Bizigabeko egoera baten aurrean gaude; koronabirusak gauetik egunera gure bizitzak erroetik aldatu ditu. Baina zentzuz, indartsu eta konpromisoz ari gara erantzuten. Txalotzekoa da herritar orok, merkatariek, ostalariek, arlo ezberdinetako profesionalek izan duten jarrera, erakundeen gomendioei jarraiki etxean geldituz. Udalaren izenean eskerrak arrasatear guztiei.

Herritarren laguntza eta konpromisoa behar dugu pandemiari eusteko. Garrantzitsua da, koronabirusa ekidin eta bere zabalpena saihesteko, erantzukizunez jokatu eta etxean geratzea Osasun Agintaritzaren gomendioak jarraituz.

Arrasateko Udala bizigabeko egoera honetan ere prest dago arrasatearren beharrei erantzuteko. Herriarrek arreta zerbitzua izango dute telefonoz eta telematikoki. BAZ era (943 25 20 00) zein Gizarte Zerbitzuetara deituz (943 25 20 87). Gainera, koronabirusagatik bakanduta daudenei etxez etxeko laguntza eskainiko die Udalak, Gurutze Gorriarekin lankidetzan. Horretarako ere BAZera deitu beharko da. Informazio osoa, Udalaren webgunean: www.arrasate.eus.

Elkarrekin eta bat eginik egingo dugu aurrera, ziur.



**GORKA
ARTOLA**
BERGARAKO
ALKATEA

Egoera zailaren aurrean gaude

Konfinamendua eta ezjakintasuna. Egoera gogorak osasun aldetik, eta beste ikuspegi askotatik: nagusiak isolatuta osasunaren izenean, bakardadeari aurre egitera kondenatuta. Etxetik irtenda edo bere erasotzailea irtendakoan arnasa hartzen zuen emakumea etxean egotera behartua, osasun arazoak dituzten asko euren bizia arriskuan sentitzearen antsietateak hartuta.

Egoera gogorak eta erantzun kolektiboak beharko dituztenak. Hori geratzen zaigu: guztion artean antolatuta eta sortu diren behar, beldur eta arazoei aurre egitea. Laguntza sareak osatu dira erosketa beharrei eta hondakinak ateratzeari erantzuteko, baina zaintza lanak dira hurrengo asteetan izango dugun erronka handiena. Egin gaitezen kargu ingurukoez: zela dauden galdetu, zerbait behar badute ahal dugun neurrian lagundu, eta aukerarik ez baduzue, jarri harremanetan zerbitzu publikoekin.

Guri herritarren alde lan egitea dagokigu, kaleetan garbiketak indartu dira, eta etxe askotara deika ari gara beharrak identifikatzen. Beharrak sortu ahala, erantzunak bilatzeko ahalegina egingo dugu.

Bide zail eta neketsua izango da, baina orain, derrigorrez bada ere, egin dezagun herri!



**IZARO
ELORZA**
OÑATIKO
ALKATEA

Segurtasuna da lehenetasuna

Anitzak izan dira azken egunetan COVID-19aren kutsatze arriskua murrizteko Oñatiko Udaletik hartu behar izan ditugun neurriak: udal zerbitzuen murriztea, egoitzen itxiera... Finean, herritarren segurtasuna eten barik izan dugu erabakien erdigunean. Ezin uka ez direla erabaki errazak izan. Ezezagun dugun testuinguru batean gaude murgildurik, egoera ezohikoan. Eta horrek ezohiko neurriak hartzera garamatza, aldian aldiko egoerara moldatzera. Dena den, herritarrek ulertu dutelakoan gaude. Doazkiela milaka esker keinu erakusten ari diren arduragatik eta erantzukizunagatik. Ez ahaztu: borroka honetan guztiok gara beharrezko.

Bestetik, ezin aipatu gabe utzi asteburuan hasitako bidea. Boluntario sarea eratzeko lehen urratsak egin genituen. Oñatik hasia du elkar zaintzaren bidea. Salbuespen egoera honetan, badira laguntza behar duten herritarrek, lehenetasunezko produktuak eskuratzeko, haur zein nagusien zaintzarako... Eta argi geratu da badihala horiei laguntzeko prest dauden herritarrek –gaur-gaurkoz, ehun herritar baino gehiagok dute izena emanda–. Beste behin, erantzun paregabea eman duzue! Biba zuek! Mila esker!



**UNAI
ELKORO**
ARETXABALETAKO
ALKATEA

Neurriak betetzea ezinbestekoa da

Ezer baino lehen, Aretxabaleako herritarrek zoriondu nahi nituzke krisi egoera honetan adierazten ari diren jokaera arduratsuagatik.

Egoera hau denontzat berria da; izan ere, orain dela gutxira arte, inork ez zuen sinetsi ere egingo horrelakorik gerta zitzaigukeenik garai hauetan.

Horregatik, neurri zorrotzak eta aldi berean beharrezkoak hartu behar izan ditugu gaitz berri honi aurre egiteko.

Badakit gogorra izango dela, hasi besterik ez baikara egin, baina behar-beharrezkoa da guztiok gure aldetik jartzea, Osasun Sailaren aginduak bete ditzagun lehenbailehen egoerari buelta emateko.

Udal bezala gure lehen ardura egoera honetan ahulenak diren nagusiak dira. Jarraipen zuzena egiten ari gara eta horrela jarraituko dugu egoera honek dirauen artean.

Ukaezina da krisi honek ondorioak ekarriko dituela, eta lanean ari gara gure esku dagoen heinean laguntza neurriak hartzeko.

Azkenik, jakinarazi nahi dut edozein aldaketaren berri ahalik eta azkarren emango dugula.

Horrenbestez, zaindu zaitezte guztiok.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Itziar Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketaziora
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitate
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua**



**JOSERRA
ZUBIZARRETA**
ESKORIATZAKO
ALKATEA

Guztion artean gaindituko dugu

Bizitzen ari garen momentu latz hauetan, lehendabizi nire esker onak eman nahi dizkiet osasun arduradun eta administrazio publikoek emandako argibideak eta agindua jarraitzen ari diren hiritar guztiei. Gogorra da, bai, baina krisi honetatik ahal den eta ondoen irteteko ezinbestekoa da guztion ahailegin berezia. Benetan azpimarratu nahi dut: guztion lana beharrezkoa da gaitz honi aurre hartzeko, aipatzen dizkiguten pautak jarraitzea. Izan ere, hau guztion artean egin beharreko ahailegin berezia da.

Nire aitortpena ere euren lanpostuetan jarraitzen duten langile publiko zein oinarritzko zerbitzuak aurrera ateratzen dituztenei. Kale garbitzaileak, okindegi edo janari dendakoa... baina ere lanean diharduten udal langileen lana eta konpromisoari esker, oinarritzko zerbitzuak eskuragarri ditugulako.

Azkenik, oso garrantzitsutzat jotzen dugu ofiziala ez den informaziorik ez zabaltzea. Komunikazio kanal ofizialak zabalik daude eta toki guztietara iristen dira. Beraz, ez zabaldu informazioa ez badakizu nondik datorren.

Guztion artean gaindituko dugu.

Eskerrik asko!



**BEÑARDO
KORTABARRIA**
ANTZUOLAKO
ALKATEA

%1 madarikatu hori

Domeka. Koronabirusak lortu du indar polizial-judizialek lortuko ez luketena: ia 23 urte kartzelan egon ondoren, *Eltzikorta* herrira bueltatu da, eta kale ia hutsek egin diote harrera. Herriarren berotasuna sentitu zuen, ziur.

Domeka goiza. Denok etxean preso. Ia denok, beti berera doazen lau listotxoak kenduta. Zerrenda beltzean zaudete!

Domeka eguerdi-arratsaldea. *Whatsapp*-a handik, *whatsapp*-a hemendik... elkartasun-taldea egituratzen hasi da. Iluntzerako, 30eko lantaldea dugu. Astelehenean 43 dira. Biba zuek.

Laguntza beharra izan dezaketenei deika hasi gara. Inork ez du laguntza beharrik. Poz txikia, herriak komunitate izaten jarraitzen du, ondokoagatik kezkatzen. Albiste tristea: Torreko Isidro hil egin da. Lehen zinegotzi izandakoa, azken urteotan kolaboratzaile fin Ingurumen Batzordean. Ezin ganoraz agurtu, hori mina eta tristura.

Astelehen iluntzea. Buztinzurin bat-bateko *party*-a egin du Patxi Luquek. Jendea balkoietan, Facebook bidez etxean dantzan... bakoitzak ahal duen moduan laguntzen du, listotxoan %1 madarikatu horrek izan ezik.

Segi zeuen burua eta ingurukoena zaintzen. Askok gure esku dago. 24 orduko telefonoa: 650 80 52 48.



**LIERNI
ALTUNA**
ARAMAIOKO
ALKATEA

Elkarrekin gaindituko dugu

Behar baino beranduago, baina neurriak hartu beharra ezinbestekoa zen.

Eskatzen diet pertsona nagusiei edota arrisku taldeetan daudenei ez ateratzeko etxetik. Herrian boluntario talde bat prest dago behar diren segurtasun neurriekin jendeari janaria, ogia, botikak... etxera eramateko edo zaborra kalera ateratzeko.

Txarrenean ere onena ateratzen badakigu; zoragarria da gazte eta ez hain gazte direnen prestutasuna laguntzeko eta laguntza sarea antolatzeko. Aupa zuek!

Egoera surrealista hau pasako da, ahalik eta azkarren eta baja gutxienekin izan bedi, baina esfortzua egin beharra daukagu. Eta pasatzen denean geldialdi honi buelta emango diogu denon artean eta denontzako, kaltetuak betikoak ez izateko.

Bihotz-bihotzez eskerrak egoera honetan onena ematen ari diren osasun langileei!

Eta ezer ez faltatzeko lanean jo eta ke dabilatzane; bereziki, Aramaioko dendari txikiei, eskerrak herrian horrelako zerbitzua ematearren! Ez gaitezen ahaztu beraietaz eta zerbitzu hauek herrian egotearen garrantziaz hau dena pasatzen denean.

Animo denoi! Honi ere elkarrekin buelta emango diogu!



**IRAITS
LAZKANO**
ELGETAKO
ALKATEA

Denon artean lortuko dugu

Zerbitzuak bertan behera, parkeak eta frontoia itxita, antolatutako ekitaldiak bertan behera, kalera irteteko debekua...

Izan ere, errotik aldatu du COVID-19 gaitzak jendartearen bizitza, baita kaleko giroa ere. Hutsik daude kaleak, eta jendea zorrotz ari da betetzen, oro har, agindutakoa.

Ez da txantxa. Arnas bideetako gaitzak dituztenak eta edadetuak dira birusak bereziki arriskuan jartzen dituenak, eta guztion ardura da talde horietara birusa ez iristeko ahailegina egitea, eta osasun sistema ez kolapsatzea. Bi horiek lortzeko eraginkorrena etxean gelditzea da, harremanak ahalik eta gehien mugatzea. Horrek lan esparrua ere barne hartu behar luke.

Azken egunetan sarri esan dugun arren: eskuak sarri garbitu, beste pertsonetik distantzia utzi, dendetan gehienez ere bi bezero batera, ilarak kanpoan... Eta edozer behar izanez gero, ez egin zalantzarik eta deitu udaletxera: 943 76 80 22 edo 634 43 84 58.

Erronka potoloa dugu aurrean.

Sekula ez diogu halako zerbaiti aurre egin, eta egunegun ikasten ari gara. Seguru nago denon artean lortuko dugula.



**EUGENIO
OTSOA**
LEINTZ GATZAGAKO
ALKATEA

Laguntza sarea sortu da

Espainiako Gobernuak alerta egoera deitu eta gero, Udal bezala ere ezohiko neurri batzuk hartu ditugu; esaterako, udal instalazioak itxita egongo dira. Udaletxean ez da zuzeneko arretarik egongo, telefonoz edo posta elektronikoz baizik:

udala@leintzgatzaga.eus / 943 71 47 46.

Horrez gain, eskertzekoa da herritarren kolaborazioa; izan ere, laguntza sare bat sortu da edozein beharri aurre egiteko, hala nola medikuarengana eramateko, erosketak egiteko, baserriko lanak egiteko... beti dira ongiatorriak horrelako laguntzak, eta bizi dugun garaian are gehiago.

Labideak ordutegi murriztua izango du eta denda zerbitzua eskainiko du soilik, ez da taberna zerbitzurik emango eta datozen egunetan ordutegia hau izango da: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 19:00etara eta asteburuetan 10:00etatik 12:00etara. Bertako langileak ere prest agertu dira herritarren beharrak asetzeko, eta norbaitek erosketak egiteko beharra izanez gero edo Labidean bertan eskuratu ezin daitekeen produkturen bat nahi izanez gero, beraiekin harremanetan jartzeko aukera izango du. Harreman zuzeneko telefonoa: 943 71 30 93.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

BARRU

GOIENA TELEBISTA,
MARTXOAREN 24AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
BEÑAT BARRUTIAREKIN, ERRUGBI INKLUSIBOA GERTUTIK



goiena
Zu hemen zaude.

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Espainiako Gobernuak koronabirusari aurre egiteko osasun alerta egoera ezarri zuenetik asko aldatu da herritarren egunerokotasuna. Jendea beharrezko jardueretarako edo lanera joateko atera da asteon etxetik, eta, langileen artean, zenbait herritar etxetik ari diren arren lanean, badaude zenbait lanik ezin dutena etxetik egin eta denbora batez negozioko ateak itxita mantenduko dituztenak, eta ordu jakin batzuetan soilik irekiko dituztenak ere badaude.

Norberaren kontura diharduten langile edo langile autonomoen kasuan, esate baterako, lanik ezin egin daude asko, eta, gainera, aurreikuspen guztien arabera alarma egoera honek luze iraungo duelakoan, urduritasuna da nagusi.

LEIRE ERRASTI

TABERNARIA

"Negozioa aldi baterako itxeak eragin handia izango du"

Eskoriatzako Urrestilla tabernako Leire Errastik joan den egubakoitzean hartu zuen negozioa aldi baterako itxeko erabakia. "Eusko Jaurlaritzak emandako adierazpenen aurretik itxi genuen taberna. Zentzuzkoa iruditu zitzaigun, oraindik ez baitakigu guztiz zer den koronabirusa, nolakoa izango den hemendik aurrera izango dugun egoera... baina, aurreikuspenen arabera, luze joango delakoan gaude". Hala, zehaztugabeko denbora batean negozioa itxita izateak fakturazioan eragingo diela ere gaineratu gura izan du: "Gutxienez, hilabeteko fakturazioa galtzea dakar egoera honek, kuotak eta gainontzeko gastuak ordaindu beharko ditugu, gizarte-segurantza, banatzaileak... Airean dago dena, eta zalantzak ditugu. Hala ere, pazientziak jokatu behar dugu". Horren harira, Gobernuak ezarritako neurriak betetzeko eskaera ere gura izan du egin Errastik: "Denok etxean geratu behar dugu; norberaren osasuna eta herritar guztiena baita momentu honetan garrantzizkoena. Koronabirusaren zabalkundea oztopatu eta herritar kutsatuen kopurua apaltzeko ondo egin



Leire Errasti, Urrestilla tabernako jabea. I.BELOKI



Jorge Markiegi, Markiegi arropa dendako jabea. GOIENA



Itziar Oyarzabal, Kimu ile-apaindegiko jabea. I.BELOKI



Luis Ezkurra, Leniz tailerreko mekanikaria. I.BELOKI

Autonomoak kezkatuta, egoera luzerako izango den aurreikuspenarekin

Denetariko kasuak daude langile autonomoen artean; batzuek irekita dituzte negozioetako ateak eta beste batzuek, ez, baina eguneroko lan-jarduna guztiei aldatu zaie, eta gaineratu dute osasun alertak eragin handia izango duela guztiengan

behar ditugu gauzak. Buelta-tuko gara normalitatera, eta gero irtengo gara festara; bi-tartean, geratu zaitezte guztiok etxean".

JORGE MARKIEGI

DENDARIA

"Apalategi guztiak beteta ditugu, eta ezin izango dugu produktua saldu"

Arrasateko Markiegi arropa dendako Jorge Markiegi jabeak adierazi du komertzio txikiaren berezko egoera ez dela oso ona, baina sufritzen ari diren egoera honek komertzialki esanda "hildako" asko utziko dituela bidean: "Egoera honekin, bi hilabetetik

gertuago egongo gara, esaten duten moduan, hilabete bakaurretik baino. Nire kasuan, ehungintza sektorean, momentu oso txarrean harrapatu gaitu, udaberriko eta udako produktu guztiak jaso baititugu. Apalategi guztiak beteta ditugu, eta ezin izango dugu produktua saldu, baina ordaindu beharra dago... Diru kopuru handiaz ari gara hitz egiten, eta langileen egoera konponduko dugu modu batera edo bestera, baina hornitzaileen kontua konplexuagoa da. Berarekin adostu beharko dugu ea epemugak luzatu ditzakegun...". Hala ere, egoera hobetzea ez dela hain samurra izango gaineratu gura izan du Markiegik: "Epe motzean gauzak konpondu arren, bola handituz joango da; izan ere, maiatzean ateak itxita

Ajarraituko dugula uste dut nik. Beraz, hurrengo denboraldiko produktuak ere pilatuko zaizkigu. Hori horrela, dena negoziatzen saiatuko gara, eta aurrera jarraitu behar".

ITZIAR OYARZABAL

ILE-APAINTZAILEA

"Ile-apaindegia garbitzen ari naiz egunotan, ezer gutxi egin dezaket"

Eskoriatzako Kimu ile-apaindegia ere itxita dago; hala ere, astean behin dituen bezeroei zerbitzua eskaintzeko aukera izanik, ahal duena egiten jarraituko duela adierazi du Itziar Oyarzabalek: "Hasiera batean,



ile-apaindegia irekita mantenduko zirela adierazi zuen Gobernuak, baina erabaki hori ere aldatu egin zuten, eta zentzuzkoa iruditzen zait. Hobeto horrela; izan ere, autonomoak garenok gure kabuz ixten badugu negozioa, ez genuke dirulaguntzarik izango, eta orain, behintzat, aukera izan dezakegu laguntza horiek jasotzeko. Hala, erakunde publikoei ahal duten heinean gure egoera errazteko neurriak hartzeko eskatuko nieke, gero aurrera egin ahal izan dezagun". Etxez etxeko zerbitzuari dagokionez, eskaerarik jaso gero prest dagoela erantzuteko adierazi du Oyarzabalek. Betiere, beharrezko neurriak hartuta: "Adineko jende asko dago astean behin datorrena ilea garbitzera, eta horiei zerbitzua eskaintzeko prest nago, betiere, sintomarik ez badute eta beharrezko neurriak hartuta. Hala ere, herritar askoren beldurra hor dago, eta sintoma txikiren bat egonez gero nire burua arriskuan jarri dezaket, eta baita besteena ere; beraz, halaxe dago kontua... Hasiera batean, ile-apaindegia garbitzen ari naiz egunotan; ezer gutxi egin dezaket".

LUIS EZKURRA


MEKANIKARIA

"Lan gutxiago dago eta egunerokotasuneko lan-jarduna moldatu egin behar izan dugu"

Eskoriatzako Leniz Erreparazioak tailerrean ateak itxi ez, baina egunerokotasuneko lan-jarduna aldatu egin zaiela adierazi du Luis Ezkurra mekanikariak. Izan ere, lana jaisteaz batera, jendeak autoa ez duela tailerre-ramaten eta beraiek dabil-tzala etxeetara joaten hauen bila adierazi du: "Lan gutxiago dago, eta ezin dugu normaltasunez lan egin; beraz, hemen gaude egoera hau aguantatzen. Hasiera batean, irekita ditugu ateak, baina ez dakigu noiz arte. Hala ere, tailerrean beti dago zerbait egiteko, eta ez gaude geldirik. Egoera hau luzerako izango dela aurreikusten da, eta fakturazioan eragin handia eragingo digu horrek. Beraz, pazientziak hartu behar dugu, eta pentsatuko dugu gero nola eman buelta arazo honi".



Ainhoa Urzelai, Oñatin, etxean, ordenagailu aurrean. A.U



Eneritz Madariaga, lantoki berrian, Bergaran. E.M



Carmen Zafra, Mikel, Jon eta Karlos Etxanizekin. K.E

Egun batetik bestera ordenagailua irtenbide bakar bihurtu zenekoa

Joan den astean eskola guztiak bertan behera geldituko zirela iragarri zutenetik, ehunka milaka ikaslek eta irakaslek online eskoletan dute esperantza ipinita; egoera ezohikoari erantzuteko, eredu berriak bilatu behar izan dituzte, ondorioak gutxitzeko

Miren Arregi ARRASATE

Irakaskuntza jarduera presentziala etenda, hezkuntza arloko profesionalak eta ikasleak lanean jarri dira, berrogeialdiak ikasturtean izan ditzakeen ondorioak gutxitze aldera. Egoerak oso bestelakoak dira batean edo bestean, ikasketa batzuk online egiteak dituen ezinezkotasunak kontuan izanik. Hala ere, asko eta asko dira ordenagailu bitartez eta modu ez presentzialean landu daitezkeen ikasketak, eta orain, ikasle, irakasle eta guraso egoera berrira egokitzen ari dira, ia ziur hamabost egun baino gehiago iraungo duen egoera ezohikora.

AINHOA URZELAI

UNIBERTSITATEKO IKASLEA,
MADRILEN

"Gure kasuan, uste dut posible dela etxetik ikasturtearekin aurrera segitzea"

"Madrilen dihardut ikasten, Psikologia eta Logopedia gradu bikoitza. Joan den astelehenean eman zuten ikastetxe eta unibertsitate eskolak eteteko abisua. Hamabost egun izango direla esan badute ere, asko kezkatzen

nau egoera hau luzatzeko aukerak. Oraingoan, unibertsitateak ekain bukaeran bukatu beharrean, azken azterketa uztailearen 15era pasatu digute. Gure kasuan, online ikasketak ikasgai baten soilik hartuko ditugu. Beste guztietan lanak edo irakurketak bidali dizkigute eta zalantzarik badugu posta elektronikoz jar gaitezke eurekin harremanetan. Eskolak online bidez jasotzen ditugun ikasgai horri dagokionez, uste baino askoz hobeto doa dena. Harritu egin nau horrek, eta esango nuke posible dela gure kasuan ikasturtearekin aurrera segitzea, nahiz eta, esaterako praktikaldiak, oraingoan, bertan behera gelditu diren. Bestetik, talde lanak ere baditugu eta Skype bidez egingo ditugu. Taldeak gehienez ere bost edo sei lagunekoa direnez, ez dut uste arazorik egongo denik.

Etxean egotearen kontua oraingoz ez zait oso gogorra egiten ari, baina badakit datorkiguna gogorra izango dela. Nire ustez, gogorrera errutina bat jarraitzea da, baina behar-beharrezkoa dela esango nuke. Horrela, ikasteaz gain, kirola eta gustuko ditugun gauzak egin ditzakegu, eta egunak ez zaizkigu han gorrak egingo. Egunerok goiz

esnatzen saiatuko naiz, goizean ikasi, eskolak jarraitu eta arratsaldean bestelakoak egin ahal izateko. Gainera, etxekoon arteko harremana ona izan dadin bakoitzak egin beharrekoa ondo antolatuta izatea beharrezkoa dela iruditzen zait".

ENERITZ MADARIAGA

MIGUEL ALTUNAKO IRAKASLEA

"Etxean egon beharreko denbora luzatzen bada, arazoak sortuko dira"

"Joan den astean eskolak eten-go ziren neurria aditzera eman zutenerako irakasleok egoera aztertuta geneukan. Alegia, nola kudeatu behar genituen materia desberdinak modulu bakoitzean eta nola egin behar genuen ikasleen jarraipena online bidez. Miguel Altunako Fabrikazio Mekanikoko Produksioaren Programazioa goi mailako zikloan hainbat modulu ematen ditut nik eta gehienak online egiteko modukoak dira. SITES bat dugu, non irakasleok materiala, arketak, bideoak-sarri, irakasleok grabatutakoak-igotzen ditugun. Gainera, sortzen diren zalantzak bai posta elektronikoz eta baita

online bidez argitzen ditugu. Ikasleekin dugun harremanak jarraitzen du egunerokoa izaten. Eurek ikasturte osoan zehar bezala, badute eguneroko bat. Bertan, astean zehar ikasgai bakoitzean landu beharrekoa azaltzen da, eta orain ere berdin. Hala ere, badaude ikasgaiak %100 praktikoak direnak, eta kasu horietan, konplikatuagoa da. Gure kasuan, oraindik online bidezko eskolak ez ditugu eman, baina baliteke ematen hasi behar izatea, egoera hau asko luzatzen bada. Hala ere, badakigu horrek mugak ere badituela; laborategiko eta bestelako praktikak ezin dira egin, ez eta tailerrean eta makinetan piezak fabrikatzen jarraitu ere. Kontua da honek hamabost egunekoa iraupena badu ez dagoela arazorik; luzatzen bada, ordea, bai. Oraindik ez dakigu ezer eta egunean egunekoa ikusten eta erabakiak hartzen joan behar dugu. Agian, luzatzen bada, ikasturtea ere luzatu beharko da, batek daki. Irakasleok arteko harremanek dagokienez, bestetik, astero egiten dugun zikloko bilera online egin beharko dugu guztiok batera."

CARMEN ZAFRA ETA KARLOS ETXANIZ

GURASOAK

"Laurok gaude etxean eta prest gaude egoerara egokitze"

"Bi seme ditugu, bata Fisika Unibertsitatean lehenengo mailan eta bestea hirugarren DBH egiten Aranzadi Ikastolan. Ondo gaude; gainera, gure semeek 18 eta 15 urte dituztela kontuan hartuta ez dugu arazorik ikusten etxean egun batzuetan denok batera egoteko, denon hoberako baita. Haiek ere ondo ulertzen

dute zein den egoera, ez da berdina umeak txikiak direnean. Gure kezka nagusia une honetan da ea posible izango den ikasturtea behar bezala bukatzea. Izan ere, baliteke egoerak hala eskatuta kurtsoa luzatu beharra azterketak egin ahal izateko.

Bestetik, semeek, oraingoan, ondo daramate itxialdia, ez dute arazorik izan egoera berrira moldatzeko. Kontuan hartu behar dugu eskolara joango balira bezala ordutegia errespetatzen ari direla. Gainera, semeak konektatzen dira denbora errealean klaseak jarraitzeko. Beraz, horrek dakar ordutegi bat jarraitu beharra esnatzeko, gosaltzeko, dutxatzeko, aisialdirako... Hala ere, zenbaitetan, kostatzen da ordutegi hori jarraitzea. Etxea ere prestatuta genuen egoerarako. Izan ere, horrek eskatzen du baliabide tekniko aldetik hornituta egotea eta espazioa ere izatea. Halaber, uste dugu edonoren esku ez dagoela, eta zenbait ikaslek eta jendeak etxetik lan egiteko arazoak izango dituztela. Bestetik, biak dira musikariak eta pianoa eta txistua jotzeko ere ari dira aprobetxatzen. Jonek, nagusienak, gainera, unibertsitateko azterketetarako ikasi beharra du. Etxean korrika egiteko makina ere badugu eta Mikelek, gazteenak, korrika egiteko ere aprobetxatzen du. Hori ondo etorriko zaigu, kirola egitea ezinbestekoa iruditzen baitzaigu.

Esperientzia berriak dira guztiondako. Gure kasuan, laurok gaude etxean eta prest gaude egoera berrira egokitze, elkarri laguntzeko, ez dago besterik. Gure nagusiekiko elkartasuna izatea ezinbestekoa da, kontuan hartuta une honetan jendarteko pertsonarik ahulenak direla. Egoera honetan zaindu egin behar ditugu eta agintariek eta adituek esaten dizkiguten guztiak aintzat hartu".

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Osasungintza arloko lau profesionalen egon da GOIENA, egoera nola bizi duten jakiteko.

IÑAKI PEÑA

BARNE MEDIKUA

"Txagorritxu da gure erreferentzia, zer etor daitekeen jakiteko"

Iñaki Peña barne medikuntzako profesionala da Debagoieneko Ospitalean. "Gaixotasun berria den heinean, ezjakintasuna dago, baina baditugu Txinako eta Italiako erreferentziak. Hala ere, guretzako Txagorritxu da erreferentzia, etor daitekeena nola-koa izan daitekeen jakiteko".

Azaldu du "kezka" bizi izan dutela Txagorritxun gertatutakoa. "Bertako lankide askok egin dute jada berrogeialdia, eta horietako batzuk infektatuta daude; gehienak, barne medikuntzakoak. Horren eraginez, Debagoieneko Ospitaleko langileren bat edo beste Gasteizera joan behar izan da, errefortzu bezala zerbitzua ematera". Egoera horrek zentroen arteko laguntza areagotu duela dio. "Txagorritxun gertatutakoak egoera irauli du. Normalean, Debagoieneko ospitaleko kasu larriak Gasteizera bideratzen ditugu, bertan baliabide gehiago dituztelako: espezialista gehiago, baliabide material gehiago... baina orain, alderantzizkoa gertatzen ari da, gu ari baikara Gasteizko pazienteren bat edo beste hartzen. Une honetan, gainezka daude, eta laguntza eman behar diegu. Jada hasi dira ere pazienteak Gasteiztik Donostia-ko Ospitalera bidaltzen, bertako egoera askoz hobea da baita. Gasteizen jada heldu dira egoerarik okerrenera, eta gu jakitun gara okerrenera hurrengo asteetan helduko zaigula; baina prestatuta gaude".

GEMA BIKUÑA
ERIZAINA

"Txanda bakoitzean jai duen erizain bat ari da boluntarioki lanean"

Erizain oñatiarrak Mendaroko ospitalean egiten du lan, larrialdien alorrean. "Egoera kontrolpean dugu une honetan;

Ekaitz gogorrenaren zain, "indartsu" eta "laguntzen jarraitzeko gogoz"


Osasun arloko langileak ahalegin betean dabilta koronabirusaren krisiari aurre egiten. Jendearen babesa sentitu dute, txaloen bidez, baina diote krisia gainditzeko denon lana behar dela; profesionalena eta baita arduraz jokatzeko duten herritarrena




Iñaki Peña, barne medikua Debagoieneko Ospitalean. GOIENA.



Gema Bikuña oñatiarra, erizaina da Mendaroko ospitalean. G.B.



Leire Fernandez, Debagoieneko Ospitaleko erizaina. L.F.



Marina Lopez, Ruiz Perez farmaziako langilea. JOKIN BEREZIARTUA

kasu positibo gutxi ditugu, eta modu eraginkorrean ari gara lanean. Egokitzeko gaitasun handia eskatzen digu egoerak, protokoloak ia egunero aldatzen direlako".

Espazioak eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dabiltzala aipatzen du. "Larrialdietako espazioak berrantolatu egin behar izan ditugu. Hala, arnasteko zailtasunak eta halako sintomak dituzten pazienteak gela isolatu batean jartzeko moldaketak egin behar izan ditugu. Hasieran, txandako erizain guztien artean artatzen genituen, eta eurengana joateko babes neurriak erabiltzen genituen denek: maskarak, betaurrekoak, eskularru bereziak, amantal bereziak... baina orain, erizain,

erizain-laguntzaile eta mediku bakarra aritzen da txanda bakoitzean paziente horiekin. Modu horretan, babes material askoz gutxiago erabiltzen dugu. Une honetan, herritarrak etxean isolatuta daude, baina horren emaitzak ez ditugu orain iragarriko. Hurrengo bi asteetan edukiko dugu lan gehien, eta komeni da materiala zentzuz erabiltzea".

Mendaron txanda boluntarioak egiten dabilta erizainak. "12 orduko txandak egiten ditugu, astean hiru egunez. Baina beharra dagoenez, boluntarioki ari gara jaiegunak lanean bideratzen. Txanda bakoitzean lauzpabost erizain daude, orokorrean; baina, une honetan, jai duen erizain bat ari da boluntarioki lanean txanda bakoitzean".

LEIRE FERNANDEZ
ERIZAINA

"Larrialdietara datozen kasu ez larriak nabarmen jaitsi dira"

"Koronabirusa ebola bezalakoa izango zela uste genuen. Urrutitik ikusten genuen, baina hona helduko zenik pentsatu gabe; eta kasu honetan, heldu egin da. Txinako eta Italiako ikusita, duela hilabete hasi ginen formakuntzak jasotzen, batez ere, norbera babesteko ekipamenduak nola erabili jakiteko. Baina, errealitatean, protokoloak ia egunero aldatzen dabilta, eta kosta egiten ari zaigu azkartasunez lan egitea. Pixkanaka, protokoloak ari dira egonkortzen,

eta gu ere bagabiltza trebatzen". Lan karga handitu zaien galdetuta, hona erantzuna: "Nik larrialdi zerbitzuetan egiten dut lan, eta gure kasuan, lan bolumena asko jaitsi da. Krisi honen guztionen aurretik kasu askoz gehiago artatzen genituen, baina orain, kopuru hori asko jaitsi da. Ziurrenik, beldurragatik izango da, baina larrialdietara datozen kasu ez larriak nabarmen jaitsi dira; eskerrak, bestela ez genuke-eta baliabide nahikorik izango krisi honi aurre egiteko. Koronabirusarekin lotutako pazienteak artatzeko debora gehiago behar dugu, babes neurriengatik, batez ere; beraz, paziente gutxiago ditugu, baina denbora gehiago eskatzen dutenak. Egoera larriena heltzearen arren, indartsu ikusten du lantaldea: "Debagoieneko Ospitalean oso lantalde ona daukagu, eta harreman ona dugu gure artean. Eta esango nuke talde sentsazioa are indartsuago izaten ari dela krisi garai honetan. Elkarri laguntzeko ahaleginak egiten ari gara".

MARINA LOPEZ
FARMAZIAKO LANGILEA

"Gel edo alkohol gabe, ura eta xaboia nahikoa dira babestuta egoteko"

Gipuzkoako Sendagileen Elkar-teak farmazietara gel eta maskara bila ez joateko mezua igorri du. Marina Lopezek Arrasateko Ruiz Perez farmazian egiten du lan, eta aurreko asteburuan guardian egotea egokitu zitzaion. "Gel hidroalkoholikoa, maskarak eta alkohola agortuta daude erabat, eta nahiz eta eskatu, ez zaizkigu heltzen. Zapatuan, adibidez, erosle bakoitzeko alkohol pote bat saldu genuen. Jendeak seinaka erosiz gero, ez dago denontzako. Goizean 24 pote jaso genituen, eta bi ordutan, denak salduta. Hala ere, gogoratu nahiko nuke gel eta alkohol gabe, ura eta xaboia nahikoa direla babestuta egoteko. Hori bai, gutxienez, 20 segundo behar dira eskuak garbitzeko". Produktu falta ikusita, itxaron zerrendak jarri dituzte: "Falta diren produktuak emateko itxarote-zerrenda bat dugu, eta orain, 40 lagun daude. Gaixo kronikoei eta alde aurretik eskatu dutenei lehentasuna emateko da".

Egoera zaila bizi dutenek arduraz jokatzeko eskatu diete herritarrei

Koronabirusak kutsatuta daudenen kopurua goraka doa; baita berrogeialdian egon behar dutenena ere. Herritarrei etxean geratzeko eta arduraz jokatzeko eskatu diete kaltetuek, sarean. Egoera zaila bizi dutenen testigantza jaso du GOIENAK

Maidar Arregi ANTZUOLA

Geroz eta jende gehiago dago kutsatuta eta ospitalean; baita kutsatu gabe berrogeialdian. Hala, askotariko egoerak sortu dira herritarren artean. Testigantza eta istorio asko, gainera, gogorak dira. Horietako lau jaso ditu GOIENAK. Guztiak oso baliagarriak, zenbait egoeraren aurrean herritarrei jakinarazteko nola jokatu behar duten. Istorio guztiek helburu bera dute: lasaitasuna eta arduraz jokatzeko eskaera helaraztea.

Ikasgai diren istorio gogorak

87 urteko ama egoera kritikoan –erizain batek kutsatuta– duen semearekin; Gasteizen irakasle den kutsatutako emakumezkoarekin eta haren senarrarekin; berrogeialdian dagoen gizonezko kutsatu gabearekin; eta Txagorritxun –koronabirusaz gain metastasia du– hiltzear den emakumezkoaren alabarekin berba egin du GOIENAK.



IZASKUN BESA GIL
ARETXABALETAK

"Ama badoa eta ezin naiz alboan egon"

Izaskun Besa Gil Gasteizen bizi den aretxabaletarrak sare sozialean bidez zabaldu duen bideoarekin jakinarazi du bizi duen egoera gogorra. Herritarrei

arduraz jokatzeko dei egin die. Izan ere, Besaren ama martxoaren 7tik dago Txagorritxuko ospitalean eta 8an jakinarazi zioten koronabirusaren proban positibo eman zuela.

Bazkaltzen ematera joan da hainbat egunetan, erizaintzako laguntzaileek duten lan karga ikusita. Orain, murriztu egin dizkiete bisitak eta ezin du halakorik egin. "Amarengana hurbildu ere ezin naiz egin, metro eta erdira egon beharra dut, gelako ezer ukitu barik. Ama badoa eta ezin naiz alboan egon. Garuneko metastasia dauka eta gaitz hori aurrera doala bage-nekien, baina onkologoak konfirmatu digu koronabirusak amaren egoera okertu egin duela eta ez dela irtengo. Berrogeialdian dagoen Gasteizko zaharren egoitzan kutsatu zen. Positibo bat jakinarazi zutenean banekien ama zela. Agintariek ez digute ezer argirik esan; ezta zaharren egoitzatik ere. Ospitalean ez da giro eta euren artean asaldatuta dabilta, lanez gainezka".

Besak arduratsu jokatu du, eta bere burua berrogeialdian jarri: "Eusko Jaurlaritzatik iritsi zitzaizkidan gutunak ez nau berrogeialdira derrigortzen. Hala ere, zentzuz eta arduraz jokatu gura izan dut eta berrogeialdia egingo dut koronabirusaren proba ez didatelako egingo eta kutsatuta egon naitekeelako. Egun bakar batean lau positibo ere ikusi ditut ospitalean, eta gaia serioa da. Denok arduraz jokatu behar dugu, eta etxean egon; mezu hori helarazteko zabaldu dut sare sozialetan bideoa. Etxean egon beharzagatik kexaka dabiltzanezi esan gura diet gutxiago kexatzeko eta betetzeko esandakoa. Jende asko dago-eta egoera okerragoan".



GASTEIZEN IRAKASLEA DA
ARRASATE

"Kutsatuta, baina onik gaude etxean"

Gasteizen irakaslea den arrasatearrak positibo eman du; baita bere senarrak ere. Joan den asteko astelehenean hasi zen irakaslea lehen sintomekin: "Buruko mina eta gauean sukarra izan nuen. Martitzen osoa propio jarritako telefono zenbakira deika igaro nuen. 5 ordu ere eman nituen, alferrik, telefonoaren bestaldean zain. Horregatik, nire medikuari deitu nion. Hark ez zuen koronabirusaren inolako sintomarik antzeman. Lasai egoteko esan zidan. Hala ere, telefono zenbaki horretara deika jarraitzeko gomendatu zidan. Azkenik, goizeko lauretan lortu nuen telefonoan norbaitek artatzea. Telefonokoak, berdintsu: sintoma horiek ez zirela koronabirusarenak. Baina neurriak hartzea eta etxean egotea erabaki nuen. Eguenean, senarra hasi zen sukarrarekin. Anbulatoria deitu eta handik bi orduara deitu ziguten koronabirusaren proba egingo zigitela esanez. Hala, asteburuan jakin genuen positibo geman genuela. Horren guztiaren ondorioz, berrogeialdian daude bai geure haurrak eta baita nire eta senarraren gurasoak. Egu-

nero deitzen digute Osakidetza-tik jarraipena egiteko familia osoari. Erosketak egiteko, aldiz, nahiko gaizki. Eroskin online bidez egiten saiatu gara eta webgunea gainezka dago. Koinatuaren bitartez eta lagunei esker moldatzen gara; atarian uzten dizkigute elikagaiak. Denak ondo gaude, baita haurrak ere, eta, gaitza gainditu edo gainditzear dugula dirudien arren, beste 15 egun egongo gara etxean neurriak hartuz, badaezpada".



ERIZAINAK KUTSATUTA DU AMA
OÑATI

"87 urte ditu; ez dakigu bueltarik emango dion"

Gizonezko oñatiarra oso kezkatuta dago bere amak 87 urte dituelako eta koronabirusaren proban positibo eman duelako. Ama orain Debagoieneko Ospitalean isolatuta dagoela kontatu dio GOIENARI. Bere arrebak berrogeialdian daude, kontaktu zuzena izan zutelako amarekin kutsatzeko gakoak diren egun horietan. "Bestelako patologia baten ondorioz ama Txagorritxun zegoen ingresatuta; alta eman eta etxera etorri zenean hasi zen guztia. Gaizki sentitzen hasi zen, eta orduan, berarekin zegoen arrebak 900 20 30 50 telefonora deitu zuen. Eta proba egin zioten joan den asteko martitzenean; positibo eman zuen. Medikuek esan ziguten Txagorritxuko kardiologia sailean ama artatu zuen erizaina kutsatuta zegoela. Nire arrebek ere egun horietan zuzeneko kontaktua izateagatik proba egin dute eta negatibo eman dute. Hala ere, berrogeialdian daude. Amak, aldiz, joan den eguenetik okerrera egin eta Debagoieneko Ospitalean dago ingresatuta, egokitutako gela berezi batean. Medikuek esan digute adinagatik buelta eman diezaiokeela edo ez. Kezkatuta gaude gertatu daitekeenarekin, bronkioak ez ditu-eta oso ondo.

Ni egun horietan amarekin ez nintzenegon, ez naute berrogeialdian jarri, baina arduratsu nabil, neurriak hartuz. Edozer gerta daiteke eta medikuek esaten dutenaren zain egon besterik ez daukagu".



MILANEN IZANDAKOTIK GERTU
ARRASATE

"Emitza jakin arte urduri egon naiz"

Koronabirusaren probaren emaitza jakin aurreko uneak urduritasunez bizi izan dituela aitortu du gizonezko arrasatearrak. Negatibo eman du, berrogeialdian dago eta une honetan lasaia dagoela dio: "Proba egin zidatenetik eta emaitza jaso arte, luze samar egin zitzaizkidan egunak eta orduak. Hasierako egunak urduri samar igaro ditut, baina lasai nago orain. Gasteizko zentro komertzial batean izan nintzen. Bertan bi neska solasean zenbiltzan. Horietako bat Milanen igaro berri zuen oporraldiaz mintzo zen. Ondo zeudela-eta ez genion garrantzirik eman. Hamar bat egun geroago, hilaren 11n, iluntzean eztarriko eta buruko mina eta eztula hasi zitzaizkidan. Medikuek esan zuten, marranta zelakotan. Badaezpada, Gasteizko pasarte jakinarazi nion. Ez nuela ondo egin hara joaten esan zidan. Maskara jarri zuen eta tenperatura hartu (37,8), eta arnasa neurtu zidan. Etxean bakartzeko esan zidan eta proba egitera joango zirela. Hilaren 12an etorri ziren proba egitera; domekan jakin nuen negatibo zela". Tartean, bikotekideak eta biek neurriak hartu dituzte etxean: komun eta ohe ezberdinak erabiliz, maskaraxoa une oro jantzi eta eskuak behin eta berriro garbituz, besteak beste. "Biok ditugu adinez nagusiak diren gurasoak, eta eurengekin ere egin dugu. Neska-lagunak gurasoekin egotea ere murriztu du. Ni berrogeialdian nago eta bajan, oraingoz".

Etxean bada ere, sasoia mantendu guran dabilta debagoiendarrak

Herritar orrendako konfinamendu egoera ezarri zenetik, etxean egotera behartuta daude debagoiendarrak ere. Neurriak ahalik eta eragin txikiena izan dezan, ariketa fisikoa egitea da adituen gomendioetako bat, nork bere aukerak baliatuta

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala "kezkatuta" agertu da konfinamendu egoera luzatuak izan ditzakeen ondorioengatik, bai ospitaleko egoaldian zehar, baita etxebizitza partikularretik ez irteteagatik. Herritar orori eragiten dion konfinamendu egoera honetan, mugikortasunik gabeko edo etzanda emandako epe luzeek arazoak sor ditzaketela azaldu dute; artikulazioen zurruntasuna, indar muskularraren galera, arnasketa-arazoak, zirkulazio-arazoak, azaleko ultzerak edo egoera mentalaren alaketak –depresioa, antsietatea...– besteak beste.

Gauzak horrela, ahalik eta aktiboen egoteko espazio eta baliabide mugatuak izan arren, egoera fisikoa zaindu eta sasoian mantendu nahian dabilta herritar ugari, etxetik, bakoitzak ahal duen heinean eta eskura dituen materialekin.

JON REGUEIRO
OÑATI

"Materialik gabe edo etxean denok egiteko moduko ariketak grabatu eta sare sozial bidez partekatu ditut"

"Monitorea naiz Oñatiko kiroldegian, eta, hortaz, hartu-eman zuzena dut kirol munduarekin. Orain egun batzuk, egoera hau hasi zenean, nire lankide batzuek zuzeneko spinning saioa eskaintzeko asmoa zutela esan zidaten, Facebook bidez, hala herritarrek haien etxeetatik egiteko aukera izan zezaten. Ideia ona iruditu zitzaidan, herritarrek sasoian egoteko

tresna bat izan zezaten, nork bere etxetik.

Nire kasuan, etxean hainbat ariketa egiten nabil egunotan, bizikletan edo indarra lantzeko ariketak. Horiek partekatzeko asmoz, bideoan grabatu dut spinning saio bat, etxean egiteko modukoa, klase birtual bat izango balitz bezala. Bideo hori sare sozial bitartez zabaldu dut, nahi duenak erabili dezan eta bere bizikletan egiteko. Hain zuzen ere, hori da nire intentzioa, denentzat eskuragarri izatea nahiko nuke.

Spinningeko klaseez gain, bes-telako ariketa batzuk ere bideoz grabatu guran nabil. Badakit herritar guztiek ez dutela etxean bizikleta bat edo kirol material zehatzik, eta, hortaz, inongo materialik gabe, nork bere pisuarekin edota etxean denok izan ditzakegun objektuekin erraz egin daitezkeenak izango dira".

MAITANE DIEGUEZ
ARRASATE

"Kirolaria naiz eta egoera honetan ere ia egunero entrenatzeko asmoa dut, 45 bat minutuz"

"Nire bikotekidearekin batera nabil egun hauek igarotzen bere etxean. Biok gara kirolariak eta ohituta gaude gure egunerokoan ariketa fisikoa egitera; kalera irtenda korrika egitera, esaterako. Gure kontura ere aurretik ariketak egiten genituen etxean edo kalean; hortaz, guretzat ez da hain ezohikoa. Gainera, nik saskibaloian jokatzen dut eta bera areto futbolekoan dabil, hortaz; gure eguneroko

zati garrantzitsua da kirola. Kirol jarduera guztiak bertan behera geratu zirenean, jada hasi ginen sasoia mantendu nahian zerbait egiten, baina konfinamendu egoerak beste errealitate bat ekarri du. Zaila izan daiteke etxetik irten gabe, gimnasiorik gabe edo kalera, mendira ezin joanda kirola egitea, baina, hala ere, garrantzitsua iruditzen zait sasoian mantentzea, fisikoki soilik ez, mentalki ere osasuntsu egoten laguntzen digulako.

Egoera ikusita, etxean *core* motako hainbat ariketa egin ditugu: abdominalak, indarra lantzekoak... Etxean dugun materialarekin moldatzen gabiltza, ahal dugun moduan.

Ikusteko dago oraindik zenbat iraungo duen egoera honek, baina konfinamenduak iraun bitartean ia egunero entrenatzeko asmoa dugu; gutxi gorabehera, 45 minutuz. Gehienbat, materialik gabeko ariketak egiten aritu naiz orain arte: abdominalak lantzekoak, plan-txak, besoetako indarra lantzeko ariketak, hankak... baina etxean dugun materiala ere erabiliko dugu".

DANEL SANTAMARIA
BERGARA

"Gure eraikineko teilatuan egiten dut ariketa fisikoa, gomak baliatuta edo soka baten laguntzarekin"

"Nire egunerokoan kirola egiten saiatzen naiz beti, bai gimnasia joanda, baita kalean bes-telako jarduera batzuk eginda ere. Ahal dudana guztietan oinez joaten saiatzen naiz lekuetara,



Jon Regueiro oñatiarra bizikleta gainean, etxeko egongelan. J.R.



Maitane Dieguez arrasatearra, etxeko sukaldean ariketak egiten. M.D.



Danel Santamaria, Bergaran, etxeko teilatuan gomekin lanean. D.S.


horrela ere ariketa fisikoa egin ez eta aktibo mantenduz nire gorputza.

Egoera normalean, konfinamendu gabe, astean hainbatetan joaten naiz gimnasia. Orain baina, ariketa fisikoaren intentsitatea murriztu behar izan dut nahitaez, azken batean etxetik ezin irtenda egoteak ez du beste aukerarik ematen eta.

Etxean ariketak egin ahal izateko badut soka bat eta baita goma batzuk ere. Horiek ematen dizkidaten aukerak baliatu eta indarra mantentzeko ariketak egiten ditut; baita abdominalak, flexioak,... Espazio murriztua izanda egiten daitekeena egiten dut etxe barruan, baina zorionez badut eraikineko teilatuan aire pixka bat hartu eta ariketa fisikoa egiteko aukera ere. Bertara igo eta gomekin, sokarekin edo nire pisua baliatuz lan egiten dut egun hauetan.

Azken finean, helburua hori da, ahal dugun heinean, orain arteko sasoia mantentzea, egun hauetan ezingo dugu askoz gehiago irabazi eta. Ariketa hauetaz gain, eserita edo ohean gehiegi ez egoten saiatzen naiz, ordu eta erdira mugitzeko ahalegina egiten dut, pare bat aldiz jaiki eta pixka bat ibili besterik ez bada ere. Garrantzitsua iruditzen zait gure burmuina eta gorputza aktibo mantendu eta egun hauetan okupatu egotea.

Dena den, garrantzia berezia ematen diot errutina bat finkatzeari; goizean goizetik egitea nahi duguna ongi planifikatu eta gure egunerokoa eramangarriagoa egiten, gure elikadura zaindu eta lo orduak mugatu eta kontrolatzeari. Ez dakigu zenbat iraungo duen honek, baina sasoi fisikoaz gain, osasun mentala ere zaindu behar dugu konfinamendu egoeran egonda.

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Gainontzeko herritarrei gertatu moduan, koronabirusak eragin zuzena izan du goi mailako kirolariengan. Etxean daude denak, hurrengo kirol hitzordua noiz izango duten jakin barik, eta etxean ahal duten moduan entrenatzen jarraitzeko egokitutako logelaren batean orduak sartzen.

MIKEL LINAZISORO

ESKALATZAILEA

"Olinpiar Jokotarako txartela orain nuen jokoan, Europakoan"

Bilbon Medikuntza ikasten dabilen bergararra etxean dago: "Ikaskideon pisuan ez da inor geratu". Baina Olinpiar Jokoetan egotea helburu duen eskalatzaileak, berez, Austrian egon behar ko luke jada: "Asmoa zen 15 egun egitea han Europako Txapelketa prestatzen, bertan izango dut-eta Olinpiar Jokotarako sailkatzeko azken aukera. Baina Europako Txapelketa, oraingoz, ekainera atzeratu dute, Europako Kopako probak ere bertan behera geratu dira... Hala, egun hauek etxekoekin lasai egoteko aprobetxatuko ditugu".

Bergarakoak ezin ditu kirol instalazioak erabili, normala den moduan: "Etxean nabil entrenatzen, garajeko horman egurrezko oholtza batzuk ditut eta indar ariketak egin ditzaket han, halaxe moldatuko gara".

OIHANA KORTAZAR

MENDI LASTERKARIA

"Min hartuta nago, ez nuen uda osterara arte lasterketetan jarduteko asmorik"

Oihana Kortazar mendi lasterkariari egoera honek gainontzekoei moduan eragiten dio, baina kirolari moduan birusaren erruz egin beharreko konfinamenduak ez du elgetarra momentu txarrean harrapatu: "Belaunean min hartu nuen duela hilabete pasa, eta hainbat hilabetez gelditu egon behar ko dut. Hala, lasterketa asko udazkenara atzeratzen da biltza, eta itzaropena dut orduan irteera puntuan egoteko. Egia esan, azkenaldian, igerian nengibilen eta uste dut horixe igarri



Asier Garitano.



Oihana Kortazar.




Aitor Fernandez.



Oihana Aldai.



Mikel Linazisoro.



Julen Irizar.

Elite mailako kirolariak etxean saiatuko dira sasoi puntuari eusten

Koronabirusa ez hedatzeko hartutako prebentzio neurriek bete-betean eragiten diete kirolariei, bai amateur mailakoei, baina baita profesionalei ere. Txapelketa eta lasterketa guztiak gelditu, etxean dihardute entrenatzen, ahal duten ondoen

behar dudala faltan. Bitartean, nahikoa lan izango dugu etxeko txikiekin etxean geratzen".

AITOR FERNANDEZ
LEVANTEKO ATEZAINA**"Klubean koronabirus azterketak egin dizkigute, eta etxean gaude denak"**

Koronabirusa duten edo ez ikusteko, klubean azterketak egin dizkiete Levanteko jokalariei eta entrenatzaileei; emaitzak negatiboak izan dira, eta gainontzeko taldekideak bezala domekaz geroztik etxean daitezain arrasatearra. "Asteburuan, jende askotxo zebilen kalean; larregi,

gauza onerako. Badirudi, baina, serio jartzen gabiltzala", dio. "Guk txakurra dugu, eta tarteka kalera irten gaitezke, denbora laburrerako bada ere". Eta etxean, ahal duen moduan entrenatzen jarraitu behar: "Logela batean ohe-sofa bat lekuz aldatu dugu eta entrenatzeko egokitu dugu logela hori, eta Internetetik bizikleta estatiko bat erosi dugu; noiz iritsiko zain gaude".

Levanterekin sekulako denboraldia egiten dabilen atezainak garbi du egoera normalizatzen denean eurak, futbol jokalariek, izango direla lanean hasten lehenak: "Ez dakigu Liga Txapelketarekin zer gertatuko den, Tebasek dio geratzen diren jardunaldiak jokatu egin behar ko

direla, baina, esaterako, jokalariek batzuei ekainean kontratua amaituko zaie. Dena dela, egoera zein den ikusita, halakoek orain garrantzi txikia dute".

OIHANA ALDAI
POZOALBENSE TALDEKO ATEZAINA**"Erizaina ere banaiz, eta pentsatzen nabil klubari baimena eskatu eta lanean hasia"**

Oihana Aldai Kordoban dabil futboleko jokatzeko, eta beste bi taldekideekin batera bizi da. "Domekatik hona badirudi jendea kontzientziatu egin dela".

Aste barruan jokalariei esan zieten partiduetan ateak itxita

jokatuko zituztela, baina eguaztenean liga jardunaldia bertan behera geratu zen. "Klubeak proposamena izan zen entrenatzen jarraitzeko lagunarteko bat egitea gazte mailako mutilen kontra, baina horrek ere ez zuen inongo zentzurik. Goma elastikoekin eta halakoekin ari gara indar ariketak egiten. Helburua da gorputzari estimulua ematea". Aldaik, baina, datozen asteetarako beste asmo batzuk ditu: "Hau luzerako doa, eta erizaina naiz. Hala, pentsatzen nabil klubari baimena eskatu eta erizainak behar dituzten lekuren batera joatea lanera, Madrilera, Euskal Herrira... Ikusiko dut zer egin".

ASIER GARITANO

ALAVESEKO ENTRENATZAILEA

"Klubean bi positibo izan ditugu, etxean gaude denok lasai"


"Egubakoitzean egin genuen azken entrenamendu saioa, eta beste aginduren bat jaso arte etxean egon behar ko dugu denok", dio bergararrak. "Bai, egia da taldeko bi kidek positibo eman dutela, baina ez dute sintomarik izan, ondo daude, eta gaur [astelehena] osterara ere egin dizkigute koronabirusaren azterketak. Bada, jokalariek klubeko bizikleta estatiko eta bestelakoak etxera eramane dituzte, eta bakoitza bere kabuz dabil entrenatzen, etxerako lanak eman dizkiegu eta. Batzuek, gainera, etxean gimnasio propioa izaten dute".

JULEN IRIZAR

EUSKADI FUNDAZIOKO ZIKLISTA

"Ziklismo denboraldia berriro hasia bezala izango da"

Julen Irizar ziklistak bi astez ez du lasterketarik izan, baina orain zen osterara ere lehian hasitekoa: "Portugalen genuen hitzordua, baina dena geratu da bertan behera, eta taldeko arduradunek esan digutena da lasaitasunez hartzeko. Arrabola egin, indar ariketak... Orain genuen sasoi puntua galdu egingo dugu, eta denboraldia berriro hasia bezala izango da. Baina ez gara zoratuko".



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Aurre egiten

Egoera ezezaguna bizi dugu asteotan, baina agintariei apur bat gehiago eska diezaiekegu. Larunbatean, eguerdia pasata, irratian Iñigo Urkullu lehendakaria zegoen hitz egiten. COVID-19ari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak hartu zituen erabakien berri ematen ari zen: "Eusko Jaurlaritzak herritarrei jakinarazten die garrantzitsua dela Osasun Sailaren agindu hau zorrotz eta eraginkortasunez betetzea". Hau da, funtsezkoa edo ezinbestekoa ez, baizik eta *garrantzitsua* hitza erabili zuen. Eta aurrerago: "herritarrei nik eskatuko niekeena da... nik uste dut [egoera] erantzukizunez eta normaltasunez aritu beharrekoa izan beharko litzatekeela". Iruditzen zait hitz egiterakoan forma sendoagoa erabiltzerik badagoela, larrialdi egoeran bereziki.

Edonola ere, herritarren artean jokaera arduratsua badaude; bikainak, gainera. Lagun asko ari da, gobernuen zain egon barik, norabide berean: hainbat denda, taberna edota elkarte gastronomikok ateak itxi zituen dekretuen aurretik, edota boluntarioz osatutako laguntza sareak sortzen ari dira gure herrietan beharra duenari laguntzeko. Zaindu zaitez, zaindu ezazu.

BUKATZEKO



Serge musikari arrasatearra *streaming* bidezko kontzertua eskaini zuen, etxeko egongelatik. SERGE

Etxeko konfinamenduan kulturaz goza daiteke

Kultura ekitaldiak bertan behera geratu diren honetan, sortzaileak etxetik bertatik hasi dira emanaldiak eskaintzen, 'streaming' bidez. Bide horretan, nabarmendu behar da Goienak ere 'Nahieran' aplikazioan dituela ikusgai ikus-entzunezkoak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Alarma egoerak ekarri du jendea etxean geratzea; eta, ondorioz, zine aretoak, musika aretoak eta bestelakoak hutsik geratu dira, ikus-entzule gabe. Egoera hori dela eta, zenbait sortzailek erabaki dute etxean dauden herritarrek animatzea, sare bidez kontzertuak edo bestelakoak eskainita.

Horietako bat da Arrasateko musikari Serge: "Bi aste barru emanaldia eskaintzekoa nintzen Donostiako Marruma elkartearen. Emanaldi ezberdinak izaten dira; ikusleek galderak egiteko aukera izaten dute... baina, egoerak hala eraginda, bertan behera geratu da emanaldia. Hango arduradun *Makoki*-k deitu zidan esanez zerbait ezberdina egiteko

gogoia zuela". Musikariekin harremanetan jarri ondoren zazpi emanaldi lotu zituen astelehenerako: "Emanaldiak Instagram sare sozialean eskaini genituen, astelehenean".

Etxeko egongelatik, zuzenean "Kontzertu lasaia izango da; *Enarak itzuli* dira diskoko abestiak eskainiko ditut, ordu eta

erdiz. Etxeko egongela apaindu egingo dut, polit gera dadin", azaldu zuen abeslariak astelehenean bertan –martxoak 16–.

Bizi dugun egoera guztiondako da berria: "Lehenengo aldia da etxeko egongelatik zuzeneko eskaintzen dudana. Emanaldia ikusten 182 erabiltzaile egon ziren".

Gehiago ere izango dira

Sortzaile eta kultur eragile asko dira horrelako zuzenekoak egiteko asmoa erakutsi dutenak. Izan ere, *#etxeangeratufest* jaialdia antolatzen dabiltza, esaterako, Euskal Herrian; oraindik, baina, ez dute emanaldien datarik zehaztu.

Etxetik zuzeneko emanaldiak eskaintzen Pello Reparazen Zetak taldea izan zen lehenengotakoa; hala, Reparazek egunero eskainiko du etxetik kontzertua beste musikari bat lagun duela, *Zetak.org* atarian.

Goiena ere, nahieran

Musikaz gozatzeko aukera barrik ez, orokorrean kulturaz gozatzeko aukera egongo da etxean. Goienak ekoiztutako ikus-entzunezkoak, adibidez, nahieran ikusteko aukera dago *Goiena nahieran* aplikazioari esker. Doan jaitsi daiteke.

Nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eLiburutegia erabiltzeko sarbidea erraztuko diela herritarrei, *Liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus* helbidea guztien esku jarrita.

Berria egunkariak Berria Aretoa jarri du martxan; Dorleta Kortazar eskoriatzarrak 15 bat minutuko ipuin saioa eskainiko du datozen egunetan.

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua Diseinu berritua Erreportajeak Kolaboratzaile berriak 'Gorabeherak' websaila...



Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan.
Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

DOAN

DESKARGATU

Play Store-n

DESKARGATU

APP Store-n

